


## Sanpedroak ESKORIATZAN

Zenbait herritan jaiak bukatu direla eta, jendea benetan oso triste badago, Eskoriatzara hurbildu dadila aste honetan. Ondo pasako duela ziurtaturik dauka Gipuzkoako herri honetara inguratzen den edonork.



CALLEJA

### EGITARUA

#### GAUR

18.30: Jaiei hasiera emango dien txupinazoa eta pregoia.

19.00: Herriko txistulari eta buruhandiekin kalejira.

19.30: Musika Eskolako Bandarekin kalejira.

22.00: Nagusien Tanborrada.

24.00: ARITZA taldearekin dantzaldia.

#### BIHAR

9.00: Txistulariekin kalejira.

11.00: Frontoian NATURGA-Seko globo aerostatikoa egongo da, non herriko ume eta gazteek igotzeko aukera izango dute.

11.45: Herriko txistulariek lagundurik, Udaleko korporazioa parrokiarantz abiatuko da.

12.00: Mesa Nagusia.

13.00: Papillon taldearekin bermouth orduko dantzaldia.

18.00: Eskoriatzako Gorosarri Dantza taldearekin Euskal dantzak.

22.15: Esku-pilota partiduak.

22.30: Papillon taldearekin dantzaldia.

Eskoriatzako Gorosarri Dantza Taldearekin Euskal Dantzak izango dira asteazken arratsaldean.

# Sanpedroak San Pedro bezperan

EIDER ZUBILLAGA

San Pedro egun bezperan hasten dituzte Sanpedroak eskoriatzarrek. Gaur arratsaldeko sei t'erdietan botako da Eskoriatzako jaien hasiera iragartzen duen txupinazoa. Pregoa entzun eta segidan herriko txistulari eta buruhandiekin kalejira egongo da. Buruhandien aurrean korrika dabilzan hurrez beteko dira Eskoriatzako kaleak. Txikienei sortarazten dieten beldurra dela eta, buruhandiak aldendu bitartean guraso bat baino gehiagok seme-alaba txikiak kontsolatu

● Eskoriatzako hurrek, ostegunean egongo den Haur Tanborrada, tanborra beren gurasoek baino hobeto jotzen duten erakusteko aukera izango dute.

beharko dituzte mozarroturik dabilen jendea besterik ez dela azalduaz. Nor ez da txikitan buruhandien beldur izan? Nahiago duenak, Eskoriatzako Musika Eskolako bandarekin kalejira ibiltzeko aukera ere izango du zazpi t'erdietatik aurrera.

Hamarrak bitartean ez da beste ekintzarik egongo. Ordu ho-

netan, Nagusien danborrada hasiko da Eskoriatzako kaleak zeharkatzen. Danborren doinuak herriaz nagusituko dira. Serio eta lerroak ahal bezain zuzen mantenduaz, danborra guztiek batera jotzen saiatuko dira aurreko entsaioetan ikasitako martxa eta abestiak herriari erakutsi asmoz. Hurrek danborra

nola jotzen duten erakusteko aukera ere badute, baina ostegunerarte itxaron beharko dute beren gurasoek baino hobeto egiten duten erakusteko.

Gaueko hamabietan hasi eta goizalderarte, parrandan ibili nahi dutenentzat Aritza taldearekin dantzaldia izango da. Asko izango dira gau guztian dantzan arituko direnak, baina lehen jai eguna besterik ez da eta datozen egunetan Papillon, Gaubela, Izadi eta Koxka taldeekin dantza egiteko indarrak ere gorde behar dira. Bai eta, ostiral eguerdian sokamuturren parte hartzeko ere.



## ESKORIATZAKO UDALA

San Pedro jai zoriontsuak opa dizkizue Eskoriatzako Udaltzak eskoriatzar guztioi.

## IRRINTZI TABERNA

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu !!

Hidalga, 5

ESKORIATZA

71 46 83 tel.

## ALDATZ

### TABERNA

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu

Aranburuzabala, 16

ESKORIATZA



Sukaldeko altzariak  
Armairu enpotratuak

ENKARGUPEKO FABRIKAZIOA - NEURRI BEREZIAK

Aingeru Guardakoaren ibilbidea - ESKORIATZA - 714936 tel.



## ALTZAIRU HERDOILGAITZEKO TRESNERIA

Sukaldeko bateriak • Presio eltzeak

71 41 31 - 71 42 56

Faxa. 71 43 87

E S K O R I A T Z A



bedardenda

Pisu kontrola kontsulta  
asteazkenetan 6.30 - 7.30

Tel.: (943) 79 81 22 ESKORIATZA